

KLIMA ALDAKETA



1- KLIMA ALDAKETA. ZERTAZ ARI GARA?

Gure mundu hau sortu zenetik klima etengabe aldatu da. Lurrak aldi hotzak eta aldi beroak izan ditu, ia osorik glaziarrez estalita egon den aroak, eta baita poloetan izotzik izan ez dituen aroak ere. Aldaketak naturak eragin ditu, eta azken mendeotan baita gizakiak ere.

Azken urteotan, **klima aldaketaren jatorria** atmosferan berotegi efektua handitzen duten gasen kontzentrazioa handitu izana da. Berotegi-efektuko gasak betidanik izan dira atmosferan, baina industria-iraultza gertatu aurreko mila urteetan ez zuten ia aldaketarik izan. Industria-iraultza gertatu zenetik berotegi efektua eragiten duten gasen kontzentrazioa, batik bat CO₂arena, nabarmen handitu da atmosferan gizakiaren ekimenez. Gero eta erregai fosil gehiago (petrolio, gasa, ikatza...) erretzen dira, eta horrek hiru gas nagusien kontzentrazioa handitu du: karbono dioxidoarena (CO₂), metanoarena (CH₄) eta nitrogeno oxidoarena (N₂O). Gas horiek handituta atmosferako berotegi efektua ere handitzen da, eta horrek batez besteko temperatura igotzea ekarri du.

Zertan nabaritzen da klimaren aldaketa?

Berotze globala eragiten duten gasen kontzentrazioa handitu izanak, temperatura aldaketak ez ezik, mundu osoko klimari eragiten dioten aldaketak ere ekarri ditu, hala nola, izotzak urtzea eta itsas maila igotzea, eta, ondorioz, urak kostaldeetako hainbat toki hartzea, prezipitazio erregimena aldatzea, planetako gune batzuk basamortu bihurtzea...

2- EGURALDIA ETA KLIMA

Badago joera klima eta eguraldia nahasteko edo sinonimotzat hartzeko, baina hori ez da zuzena.

EGURALDIA, atmosferak leku eta une jakin batean duen egoera da, **egunekoa**.

KLIMA berriz, atmosferak leku batean askotan izaten duen egoera da, **urteetan zeharkoa**.

3- AITONA-AMONEN GARAIKO EGURALDIA NOLAKOA ZEN?

Sarritan entzun dugu eguraldia eta klima aldrebestu direla, zoratu direla... Sentsazio horiek unean uneko gertakizunetan edo bizipenetan oinarrituta daude. Baina norik eman diezaguke epe luzeko ikuspuntua gai honi buruz? Horretarako bide erraza duzue. Galdetu aitona-amonei edo nagusiei, ziur asko datu interesgarriak izango dituzte eta. Noski, pertsona horiek zenbat eta nagusiagoak izan orduan eta oroimen gehiago izango dituzte ezagutu duten eguraldiari buruz. Aukera hori aprobetxatu eta entzun arretaz esaten dizuetena.



KLIMA ALDAKETA

AITONA-AMONEN GARAICO EGURALDIA NOLAKOA ZEN? (aitona-amonei edo adineko herritarrei egiteko galdetegia)

Sexua: gizonetzkoa emakumezkoa Adina: __

1. Zu umea zinenean, nolakoa zen eguraldia?

- Neguak oso gogorak, elurra eta izotza asko egiten zuen
- Neguak oso epelak, elurra eta izotza oso gutxi egiten zuen
- Neguak oraingoan antzekoak ziren
- Udan bero handia eta euri gutxi
- Udan bero handia eta euri asko
- _____

2. Somatzen al duzu aldaketarik umea zinenean egiten zuen eguraldia eta orain egiten duenaren artean?

- bai ez ez dakit

3. Baiezkoa erantzun baduzu, zertan nabaritzen duzu aldaketa?

- gaur egun baino euri gehiago egiten zuen
- udan bero gehiago eta neguak gogorragoak
- _____

4. Zergatik uste duzu gertatu dela aldaketa hori?

- Aldaketak egotea gauza normala da
- Urte gutxi batzuetako kontua izango da
- Gaur egungo bizitzeko moduak zerikusi handia izan du (garraioa, industria...)
- Ez dakit
- _____

5. Zu umea zinenean:

- Nolako argia zeneukaten etxean?.....
- Nola garbitzen zenuten arropa?.....
- Nola berotzen zenuten etxea?.....
- Telebista ba al zeneukaten? bai ez
- Nola mugitzen zineten alde batetik bestera?.....
- Erosketak non egiten zenituzten? azokan denda txikietan supermerkatuan

6. Agian entzungo zenuen mundu osoan klima aldatzen ari dela. Horri klima-aldaketa deritzogu. Ba al duzu informaziorik horri buruz?

- bai ez ez dakit

7. Guk egin al dezakegu zerbait klima aldaketaren eragina gutxitzeko? Zer?

8. Eta Udalak, zerbait egin al dezake? Ze proposatzen duzu?

(Beste galderarik egin nahi baduzue gai honen inguruan, taldean asma ditzakezue).

KLIMA ALDAKETA



Eskolako Agenda 21

LH 5 - 6 MAILAK



Imanol Eliasen Artxiboa



Imanol Eliasen Artxiboa



Eregi, Euskara eta Komunikazioa

KLIMA ALDAKETA

4- BALORAZIOA

Galdetegietan jasotako informazioan oinarrituta (Ingurugiro Etxeko web orrian EA21en sailean zintzilikatuta izango dituzue www.ingurugiroetxea.org), aitona-amonen garaia konpara ezazue gaur egungoarekin (beraien mugitzeko modua, etxetresna elektrikoak...) eta balora ezazue gaur egungo bizimoduak nola eragin dezakeen klimaren aldaketan. Power pointaren bidez, azpimarra ditzakezue eragina izan dezaketen jarduerak.

Balorazioa egiteko honako puntuak eduki ditzakezue kontutan:

- Aitona-amonen garaitik egoera zertan aldatu da?
- Hobetu al daiteke?
- Zertan hobetu daiteke eta nork? Udalak, herritarrok, ikasleok...

5- KLIMA ALDAKETA GUTXITZEKO HARTU BEHAR DITUGUN NEURRIAK

Oro har, gizakiak onartu du denbora laburrean klima aldatzen ari dela, aldaketa horrek ondorio kaltegarriak ditu, batez ere ingurumenean, eta, neurri batean, giza jardueraren ondorioa dela. Hori dela eta, azken urteetan, ingurumen-arazoez hitz egiten dugunean, lehen postuan dago klima-aldaketa. Gizakia kezkatuta dago. Egoerari aurre egin behar dio.

Zure egunerokoan oinarrituta eta beste urte batzuetan hartu zenituzten konpromisoak kontuan izanda (eranskinean dituzue):

1. Nola betetzen ari zarete konpromiso horiek? Eta horietako zein litzateke behar beharrezkoa klima aldaketari aurre egiteko?
2. Zer neurri hartzeko prest zaude zu klima aldaketa gutxitzeko? (beste urteetan hartutako zein konpromiso betetzeko prest zaude, edo berririk hartzea beharrezkoa dela uste al duzu?)

3. Zer proposatuko diozue Udalari? (galdera hau taldean egiteko da)

Gogoan izan, aldaketarik egingarriena, norberarena.

Hasi zu zeu ohiturak aldatzen!!